

## OII Biodonostiaren Diagnostiko Molekularraren Plataformaren teknologia eta tresneria

OII Biodonostiaren Diagnostiko Molekularraren Plataformak **diagnostiko molekularra** egiteko beharrezkoa den teknologia eskaintzen du (PCR, RFLPs, Southernblot eta abar), baita **Genomikako Plataformaren laguntza teknologikoa** ere (PCR Real Time, sekuentziazio automatikoa, MLPA, Typhoon Trio, Personal Genome Machine System edo PGM Ion Torrent eta abar) eta plataforma erabili daiteke diagnostikoa egiteko prozesuan.

Gainera, **hainbat teknikerako tresneria** eskaintzen du, Distrofia Fazioeskapulohumeralaren diagnostikoan eremu pulstantedun elektroforesi-sistemaren (PFGE) kasuan, adibidez, eta Medikuntza Nuklearreko zerbitzuak ere eskaintzen ditu, aipatutako diagnostikoan erradioaktibitatea erabiltzeko.

OII Biodonostiaren Diagnostiko Molekularraren Plataformak hurrengo tresneria eskaintzen du:

- **Biologia molekularreko** ohiko teknikak (PCR, RFLP, WB eta SB) egiteko ekipatuta dagoen laborategia: zentrifugagailua, mikrozentrifugagailua, hotzeko zentrifugagailua, labea, hibridazio-labea, bainua, espektrofotometroa, bainu lehorra, irabiagailua, termoziklagailuak, azpil horizontalak geletarako, UV transargizatzailea, gele dokumentadorea eta abar.
- **X izpien instalazioa eta isotopo erradioaktiboaren eremua:** bainu lehorra, erradioaktibitate-kontagailua, hibridazio-labea, hibridaziorako eta garbiketarako bainua.
- **Eremu pulstantedun elektroforesi-sistema (PFGE):** CHEF-DR II Chiller System (BIORAD).

